

## FRANCISCA DE ACULODI

### Sariaren IX Edizioa

Genero ikuspegia UPV/EHUko Gradu amaierako lanetan barne hartzearen FRANCISCA DE ACULODI Sariaren IX. Edizioaren —2021/2022 ikasturtea— Artea eta Giza Zientziak jakintza adarraren epaimahaia bildu da, eta deialdi honetan honako Gradu hauetako aurkezturiko 7 lanak aztertu ondoren, epaimahaiak sariak honako bi lan hauei ematea erabaki du:

Euskaraz:

#### **HIZKUNTZA BAZTERTZAILEAREN DETEKZIOA ELHUYAR HIZTEGIAN**

Gaztelaniaz edo beste hizkuntzaz:

#### **LUBITSCHS BERLINER JAHRE. EINE ERWEITERUNG DES FILMISCHEN FRAUENBILDS**

Deialdiaren 3. puntua betetzeko

“Epaimahaiek 2023ko otsailaren 17a baino lehen argitaratuko du deialdiaren emaitza <https://www.ehu.eus/eu/web/berdintasuna-direccionparalaigualdad/-/francisca-de-aculodi-ix-edizioa> orrian, honako hauen berri emanez: irabazlearen izena, tutorearen izena eta Saila, zein Gradu eta ikastegikoa den, eta saritutako lanaren edo lanen laburpena”.

Euskaraz eginiko lanaren Irabazlea:

**Eneko Sagarzazu Martínez**

Itzulpengintza eta Interpretazio gradua (Letren Fakultatea)

Tutorea: Elizabete Manterola Agirrezabalaga

## **HIZKUNTZA BAZTERTZAILEAREN DETEKZIOA ELHUYAR HIZTEGIAN**

### LABURPENA:

Proiektu honetan Elhuyar Hiztegiko edukia aztertu eta bertan egon daitezkeen lexiko baztertzailearen zantzuak detektatuko dira. Lexiko baztertzailea edozein motatako diskriminazioa (generoa, arraza, desgaitasuna...) adierazten duen hizkuntza moduan ulertzen dugu. Azken urteotan gizartean hizkuntza ez-sexista eta inklusiboa erabiltzeko kontzientzia zabalduz joan da, eta, hiztegiak gizartean erabiltzen den hizkuntzaren isla direnez, gai honen inguruko lanketa egiteko beharra sortu da. Horrez gain, Elhuyar Hiztegiak berriazko lanketa koordinatu bat egiteko beharra ikusi zuen feedbacka jasotzeko dituen baliabideen bidez, eta, beraz, sexismoa, arrazakeria, LGTBifobia eta kapazitismoa jorratu nahi izan dira. Elhuyarren lehen euskara-gaztelania hiztegia 1996an argitaratu zen, eta posible da orduetik hona edukia berrikusi ez izatea. Hizkuntza baztertzailearen detekzioa egiteko glosario tematikoak erabili ditugu, eta irizpide batzuk finkatu ditugu diskriminazio aztarnak identifikatu, eta behar bada aldaketak proposatzeko. Aldaketak nola eta noiz egin sistematizatzeko proposamena ere egin dugu, etorkizuneko beste lanetan baliagarria izango delakoan. Gai bakoitzeko euskararen eta gaztelaniaren berezitasunei begiratu eta gune kritiko batzuk identifikatu ditugu. Generoaren kasuan adibidez, gune kritikotzat hartu ditugu generoa duten izenak, lanbideak, familia-loturak, hizkera asimetrikoa, hitanoa, -sa atzizkiarekin eratutako hitzak eta artikulua duten erlatiboak. Hiztegian gizonen eta emakumeek dituzten agerpen kopuruak ere konparatu ditugu, emakumea gutxiago agertzen den jakiteko. Lanketa osoaren pauso bakoitza bi mailakoa izan da: sarrera mailakoa eta adibide mailakoa. Sarrera mailan egindako lana hiztegiko sarrerak marka aproposalarekin hornitzean datza. Horrez gain, beharrezkoa den kasuetan adiera eta sarrera berriak sortzea ere proposa daiteke. Adibide mailan, berriz, sarreraren barnean agertzen diren adibideak berrikusi eta behar denean aldatzean datza. Lan hau akademikoaz harago doa, erabiltzaile ororen eta Elhuyar Hiztegian bertan isla izango baitu, 400 aldaketa baino gehiago egingo direlako lanketa honen ondorioz.

Gaztelaniaz edo beste hizkuntzaz eginiko lanaren irabazlea:

**Alejandro Rodriguez Schnell**

Aleman Filologia gradua (Letren Fakultatea)

Tutorea: Cristina Jarillot Rodal

## **LUBITSCHS BERLINER JAHRE. EINE ERWEITERUNG DES FILMISCHEN FRAUENBILDS**

LABURPENA:

El objetivo del presente Trabajo de Fin de Grado es demostrar que Lubitsch amplió significativamente la imagen de la mujer en el cine de su tiempo. El director berlinés reconoció tempranamente la función esencial de la mujer en la sociedad que se configuró tras la Primera Guerra Mundial y le brindó la correspondiente primacía en sus películas. 1918 es el año de lo que se puede denominar como el "giro copernicano" de Lubitsch, tras el cual, coescribió y dirigió fundamentalmente películas con mujeres en sus papeles protagónicos. Su obra fue pionera, puesto que colocó a la mujer en el centro de la acción y la transformó en un sujeto discursivo, hasta el punto de plantear en su película *Ich möchte kein Mann sein* (1918) la posibilidad teórica de que el género sea un constructo, idea que termina desechando. Ya en sus años berlineses, el realizador alemán avanzó la que sería la imagen de la mujer en los géneros de la screwball comedy y el cine negro del Hollywood clásico. En colaboración con las tres principales actrices protagonistas de los films de su etapa alemana –Ossi Oswalda, Pola Negri y Henny Porten- varió estos patrones femeninos, matizándolos ligeramente en sus diferentes films. Las sutiles diferencias entre dichos roles hacen que la metodología más sugerente sea analizar todas sus colaboraciones disponibles. Por medio del estudio de las películas alemanas de Lubitsch disponibles con las ya mencionadas actrices, junto con una visión periférica de películas de otros directores contemporáneos de Lubitsch (1916-1922) y una selección de la bibliografía existente acerca del cine de Lubitsch y de su recepción entre críticas feministas, se pretende arrojar algo de luz sobre la decisiva influencia de dicho director en la ampliación de los modelos de representación de la mujer en el cine.